

Gipuzkoako dantza irakasleak: formazio ezaugarriak eta beharrak

Dantzan Ikasi

2010-06-21

Dantzan Ikasi
ikasi@dantzan.com
Tfno. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
2600 Eibar
www.ikasidantzan.com

Gipuzkoako Foru Aldundia
KM Kulturunea
Urdaneta, 9
20006 Donostia-San Sebastian
Tfno: 943 112891
www.gipuzkoakultura.net

Gipuzkoako dantza irakasleak: formazio ezaugarriak eta beharrak

2008ko abenduan Dantzan Ikasi formazio ekimena martxan jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura sailaren bidez. Dantza tradizionalaren eremuan dantzari eta dantza irakasleen formazio alorrean antzematen zen behar bati erantzuten lagundu nahi zaio ahalegin horrekin. Urteak dira dantza tradizionalaren alorreko dantzari, irakasle, zuzendari eta sustatzaileek beren kezka agertzen dutela jakintza esparru horretan formatu eta trebatzeko aukera urritasunaren aurrean.

Dantzan Ikasi ekimenarekin dantza tradizionalaren formazioan egin daitekeen ibilbide curricularraren inguruko gogoeta abiatu da, eta eztabaida eta ekarpenetara irekita izango den proposamen batek emango dio segida. Horrekin batera, gutxienezko ikastaro eskaintza bat bermatzeko programa bat bideratu da Gipuzkoako Dantzagunearen babesean.

Dantza tradizionalaren formazioa osatzeko bideratutako ahaleginen eraginkortasuna ziurtatu nahian, gaur eta hemen jarduera horretan diharduten dantza irakasleen berri ahalik eta zehatzena izatea komeni zela aurreikusi genuen. Dantza formazio eskaintza bat abian jartzen ari ginen, eta beraz, garrantzitsua iruditu zitzaigun eskaintza horren hartzaile potentzialen multzoa identifikatu eta ahalik eta ondoen ezagutzea.

Dantza irakasleei, alegia, dantza tradizionalaren irakaskuntzan dihardutenei zuzentzen zaie lehentasunez Dantzan Ikasi ekimena. Horiei ezezik, interesa duten dantzari, dantzazale eta sustatzaileei ere bai, baina beren eguneroko jardueraren ondorio eta duten ahalmen biderkatzailea aintzat hartuta, formazio premia larrienean direnak irakasleak dira, eta lehentasuneko taldea haiek osatzen dute.

Lehen urratsean Gipuzkoan dantza irakasten ari diren norbanakoak identifikatzeko prozesua bideratu genuen. Sarea zabalduta eta hariei tiraka Gipuzkoan dantza irakasten ari diren 241 dantza irakasle inguru identifikatu genituen.

Gipuzkoako dantza irakasleen direktorioa eskutan, irakasle horien berri zehatzagoa izan beharra genuela erabaki genuen. Inkesta bat luzatu genien dantza irakasleei eta galdeketa horren emaitza da hemen aurkezten duguna. Gipuzkoan dantza tradizionalaren irakaskuntzan diharduten irakasleen argazki bat eskaintzen digu azterketa honek. Jarduera horri eskaintzen dioten dedikazioa, bolondres eta ordaindutako lanen errealitatea, beraien formazio orokorra zein espezifikoen inguruko datuak, eta beren buruari dantzaren

irakaskuntzan aritzeko antzematen dizkioten gabeziak azaleratzen ditu, besteak beste, txosten honek.

Azterketa hau gauzatzeko Kulturaren Euskal Behatokiaren eskertu ezinezko laguntza izan dugu. Egin nahi genuena azaldu, laguntza eskatu eta adeitasun osoz beharrezko genuen guztia eskaini digute bertako teknikariek. Besteak beste, inkestaren diseinuan, galdetegia gauzatzeko prozedurak ezartzeko orduan, datu basearen antolaketan eta esplotazio estatistikoetan parte hartze zuzena izan dute Lourdes Aranguren eta Aintzane Larrabeitik. Dantzan Ikasiren lantaldetik Jokin Otamendi eta Olaia Gabirondo arduratu dira inkestak egin eta datuen prozesamenduaz, eta Oier Araolaza aritu da emaitzak antolatzen.

Errealitate anitza, behar argiak

Azterketaren ondoren abiapuntuan genituen susmoetako batzuk konfirmatu dira eta lan-esparru dugun inguruneaz beste hainbat jakingarri eskuratu ditugu. Dagoeneko 2009an bideratu diren dantza ikastaroetarako oso erabilgarriak gertatu dira inkestaren ondorioak.

Dantza tradizionalaren irakaskuntza errealitate zabal eta anitza da gaur Gipuzkoan. Lurralde osoan daude jarduera hori sustatzen duten talde eta eskolak, eta irakasle eskaera handia dago. Dantza irakasleak oso egoera desberdinetan ari dira, bolondres dira asko eta asko, edo astean ordu bat edo bitan aritzen diren jarduera da beste askorentzat. Horren ondoan gero eta zabalagoa den taldetxo batentzat jarduera profesionala da dantzaren irakaskuntza.

Dantza irakasleek inkestaren abiapuntuan genuen susmoa berretsi dute. Formazioz herren dabilta eta ikasteko gogoz daude. Jarduera profesional baterako profesional mailako prestakuntza beharrezkoa dela antzematen da, eta horrek Dantzan Ikasiren ahalmen espazioa gaintitzen du, baina bide hori ere sustatu eta kitzikatzeko jaio zen, eta azterketa honek bide hori bultzatzen jarraitu behar dugula berretsi digu.

Irakasleak, taldeak eta eskolak

Gipuzkoan dantza tradizionala irakasten, beren dantza talde edo eskola zuzentzen, edo gutxienez irakasle-laguntzaile eta antolatzaile lanetan diharduten **241** lagun identifikatu ditugu direktorioa osatzeko lanetan. 241 lagun horiei dantza irakasleen formazioa eta beharrak ezagutzeko inkesta (ikus erantsitako agiria) helarazi zaie.

Guztira **151** inkesta jaso dira erantzunekin. Horrez gain, elkarrizketak egin dira hainbatekin, eta beraien egunerokoaren inguruko xehetasunak eta kezkek jaso dira. Inkesta bete duten 151 horiek ez dira Gipuzkoan dantza tradizionala irakasten ari diren guztiak. Gutxienez badira, beste 100 lagun jarduera horretan dihardutenak.

Inkesta bete duten 151 dantza irakasleak **70** dantza talde eta eskolatan aritzen dira dantza irakasten. Mota honetako taldeak dira:

- Dantza taldeak: 48
- Dantza eskolak: 5
- Musika eta Dantza eskolak: 5
- Dantza solteko akademiak: 5
- Hezkuntza Orokorreko ikastetxeak: 5
- Ikastaroak: 2

Dantza irakasle horiek 70 talde-eskoletan:

- 431 azpi-taldetan antolatuta dituzte ikasleak.
- 6491 ikasle dituzte guztira.
- 650 dantza ordu egiten dituzte astean.

Kontuan hartu behar da Gipuzkoan dantza tradizionala irakasten gutxienez 241 lagun ari direla gaur egun, beraz, goian bildutako zenbaki guztiak soilik inkesta bete duten 151 dantza irakasleei dagozkienak direla.

Ondoren aurkezten diren datuak 151 inkesta horietan irakasleek emandako erantzunetatik erdietsitakoak dira.

Funtzioak: dantzari / irakasle / zuzendari

Dantza irakasleak identifikatzea izan da markatutako lehentasuna, baina argi izanik dantzaren transmisioan diharduten talde eta elkarteetan ez direla beti oso zehatz mugatuta izaten dantzari-irakasle-zuzendari moduko ardura eta izendapenak. Dinamika malguak izaten dira askotan, eta egun batean dantzari denak hurrengo egunean irakasle funtzioa betetzen du eta alderantziz. Ardurak eta funtzioak konpartituak izaten dira maiz eta beste askotan ez dago irakasle edo zuzendari bezala identifikatzen den inor, eta sustapen eta antolaketa lanak kolejiatuak izaten dira.

Nahita saihestu dugu zenbait tokitan tradizio luzea duen dantza-maisu kontzeptua, zenbaitentzat horrek beste dimentsio bateko jarduera adierazten baitu, eta hori kuantifikatzen saiatzeak kontzeptuaren beraren inguruko gogoetara eraman gintzakeelako.

Beraz, kontzeptuen eta jardueren malgutasuna kontuan izanik galdetu diogu bakoitzari zein funtzio betetzen duen bere talde edo eskolan. Egindako galdera zehatza hauxe izan da:

Talde/Eskolan duzun jarduera (markatu dagozkionak):

1. Dantza-taldeko zuzendaria.
2. Dantza irakaslea.
3. Dantzaria.

Hona emaitzak:


- %17 zuzendaria da. Zuzendari guztiak dantza irakasle ere aritzen dira.
- % 95 dantza irakasle lanetan aritzen da.
- %5 ez da dantza irakasle aritzen, baina antolaketa lanetan aritzen dira, irakasleen laguntzaile izaten dira zenbaitetan, edo ardura bereziko dantzariak dira.
- %5 ez da dantzan aritzen, eta irakasle edo zuzendari lanak bakarrik betetzen ditu.

Beraz, inkesta bete duen %5a ez da dantza irakaslea, baina hala ere egokia iruditu zaigu horien datuak jasotzea. Batetik, aurretik esan bezala, talde askotan funtzio horiek ez daudelako zehaztuta, eta gerta daitekeelako talde batean inork ez errekonozitzea irakasle moduan, taldean aritzen direlako. Bestetik, zenbait kasutan, inkesta bete duten dantzari horiek laguntzaile edo antolaketa lanetan parte hartzaile direlako, eta zenbaitetan gerta daitekeelako epe motzean irakasle lanetan ere hastea.

Generoa


Dantza irakasleen artean %68 emakumezkoak dira eta %32 gizonezkoak. Zuzendarien artean, ordea, alderantzizko proportzioak daude. Zuzendarien %40 dira emakumeak eta %60 gizonezkoak.

Dantza irakasleak



■ Emakumeak ■ Gizonezkoak

Zuzendariak




■ Emakumeak ■ Gizonezkoak

Dantza irakasleen adina

Bataz-beste 27 urte ditu gaur egun Gipuzkoan dantza tradizionala irakasten ari denak. Inkesta bete dutenen artean helduenak 53 urte ditu eta 16 gazteenak. Jaioturtearen arabera, urtez-urte grafiko honek erakusten du hiru adin bloke nagusi bereizi daitezkeela:

Dantza irakasleak jaioturtearen arabera




Frekuentzien arabera egin ditugu adin multzoak eta hiru multzo nagusi hauek antzeman ditugu:

- 16-22 urte bitartekoak
- 23-32 urte bitartekoak
- 33-53 urte bitartekoak


Azpimarratzekoa da irakasleen ia-erdiak (%47) 23 urtetik behera dituela, eta %73k 32 urtetik beherakoak direla. 33 urtetik gorakoak %17 dira. Dantza irakasleen perfil orokorra nahiko gaztea dela antzematen da eta dantza irakaskuntzaren pisu handiena beraien formazio propioa oraindik osatzeko dutenen esku dagoela.

Dantza irakasleak
Adin multzoka




Ikasleak, langileak eta ogibideak

Zein da dantza irakasleen jarduera nagusia? Inkestan parte hartu dutenen artean %54 lanean ari da dantza alorretik kanpo. Ikasle eta langabetuak dira %40 eta dantza du jarduera nagusizat %5ak.




Langileen artean irakaskuntza (haur hezkuntzatik hasi eta DBHra) da jarduera mota nagusia dantza irakasleen artean; %30 hezkuntza alorrean ari dira. Ingeniari, arkitektu eta bestelako teknikariak %19 dira, eta bi multzo nagusi horietatik kanpo, hainbat jarduera desberdin ageri dira nahiko kopuru sakabanatuetan.




Ikasketak mailak eta esparruak

Dantza irakasleen %76k unibertsitate mailako ikasketak egin ditu edo egiten ari da. %31k goi mailako unibertsitate ikasketak egin ditu edo egiten ari da, eta %45k erdi mailakoak egin ditu edo egiten ari da. DBH ondoren ikasketarik egin ez dutenak %1 dira.



Irakasleen ia %19ak ikasketa teknikoak (ingenieritza, arkitektura,...) egin ditu edo egiten ari da. Horiekin batera Ekonomia eta enpresa ikasketak (%13,7) eta hezkuntza zientziak (%13,7) dira aipatuena.

Ikasketa motak



Kontuan hartzekoa izan daiteke ogibide eta ikasketen artean gertatzen den gora-behera. Lanetan zertan ari diren galdetutakoan irakaskuntza izan da erantzun gehien bildu dituenak (%30) eta ikasketa motak galdetutakoan berriz ikasketa teknikoak dira nagusi (%18), eta irakaskuntzara bideratutakoak (14%) ondoren ageri dira. Diferentzia horrek zenbait azalpen izan ditzake. Batetik, kontuan hartu behar da edozein motako ikasketak eginda ere, lanbidez irakaskuntza dutenen kopurua. Bestetik, lanbideak langileei bakarrik dagozkie, eta ikasketak, ordea, langile eta ikasleei. Ohikoa izaten da dantza irakasleak lan-munduan sartu ahal, dantza irakaskuntza alde batera uzten joatea (lanarekin bateratzeko zailtasunengatik, besteak beste) eta lan-ordutegi eta perfilen ondorioz, ikasketa teknikoak egin dituztenak dantzaren irakaskuntza uzten joatea.


Irakasleen dedikazioa

Galdeketari erantzun dioten 151 dantza irakasleek eskainitako datuen arabera irakasleen %13k talde / eskola batean baino gehiagotan ematen ditu dantza klaseak:

Zenbat talde/eskolatan ematen dituzu dantza-eskolak?

- Talde/eskola bakarrean: %87
- 2 talde/eskolatan: %7
- 3 talde/eskolatan: %5
- 4 talde/eskolatan: %1

Dantza irakasleen %48ak astean ordu bete edo bi ordu ematen ditu. Dantza irakasleen ia-erdiarentzat dantza irakaskuntza lanaldi oso urriko jarduera da. Irakasleen %39k 3 eta 9 ordu bitartean ematen ditu astean dantza eskoletan. 10 ordutik gorako lan-karga duten dantza irakasleak %12 dira. Zenbaki absolutuetan, inkesta bete duten 151 irakasleen artean 16 lagunek astean 10 ordu baino gehiagoko dedikazioa eskaintzen dio dantza-irakaskuntzari.



Ordainketak

Irakasle eta talde/eskolen arteko harremana nolakoa den ikusteko eta irakasleen dedikazioa nola saritzen den ezagutzeko, irakasle eta eskolen arteko 161 harreman aztertu dira. Ondorioak:


- Irakasle eta eskolen arteko 91 harremanetan diru ordainketa egiten da.
- 20 kasutan irakasle eta eskolaren arteko harreman ekonomiko-laborala kontratu bidez egin da.
- Lan-kontratuarekin aritzen diren artetik 8k ez dute kobratzen dutenaren berri eman nahi izan.

Esan bezala 91 harremanetan diruz ordaintzen da dantza irakaslearen lana, baina elkarrekin nekez bildu daitezkeen kalitate eta kuantitate desberdinetako ordainketak egiten dira. Besteak beste badira hileko soldata dutenak, emandako dantza-klaseen arabera orduka kobratzen dutenak eta urtean behin paga sinboliko bat jasotzen dutenak:

- 9 irakaslek urtean paga bakarra jasotzen dute 300-800 euro bitartekoa
- Astean 10 eta 20 ordu bitartean ematen dituzten zenbait irakaslek hilean 600 eta 1800 euro bitarteko soldatak eskuratzen dituzte.

Dantza-eskolak orduko zenbat ordaintzen diren jakin nahi izan dugu. 48

irakaslek emandako datuetan oinarrituta, ikusten da gora-behera handiak daudela horretan ere. Batz-bestekoz irakasleek orduko 16 € kobratzen dituztela ageri da, baina % 25ak 9 € baino gutxiago kobratzen du.



Dantza formazioa

Dantza irakasleek gaur egun duten ezagutza norekin jaso duten jakin nahi izan dugu. Izan dituzten irakasleen izenak galdetuta, 136 izen desberdin aipatu dituzte irakasleek. Erantzunen arabera nabarmena da lautik hiruk (%73) beren taldean, herrian edo eskualdean bertan jaso dutela formazio osoa.


Beraz, lautik hiruk beren taldeko irakasleekin edo inguruko taldeetako irakasleen laguntzarekin ikasi dituzte ezagutzen dituzten dantza guztiak eta ez dute inoiz ingurune horretatik kanpoko irakasle batekin ikasteko aukerarik izan. Aipagarria da ez dela bakarrik Gipuzkoako dantzei dagokien kontua, baizik eta Bizkaia, Araba, Nafarroa edo Iparraldeko dantzei buruz dakiten guztia ere beren herrikideekin ikasi dutela, eta ez dutela izan tokian tokiko irakaslerik edo erreperitorio zehatzetan berezitutako irakaslerik aurrez aurre izateko aukerarik izan.

- Dantza erreperitorioaren ezagutza osoa taldean edo herrian bertan eta inguruko irakasleekin jaso dute: %73
- Dantza erreperitorioa eta formazioa osatzeko kanpoko irakasleengana jo dute: %27

Dantza irakasleak dituzten dantza ezagutzei buruz, Gipuzkoako dantzak dira gehien aipatu dituztenak (73 aipamen) eta Bizkaiko dantzak (40) eta

Zuberoako dantzak (35) ondokoak. Hona gehien aipatu diren 10 erreperitorioak.

Gehien aipatutako 10 erreperitorioak



Hango eta hemengo irakasleekin ikasitako beste 50 dantza-sorta edo dantza-zehatz aipatu dituzte dantza irakasleek. Horra aipatutakoak:

Baztango mutil-dantzak	Cortes-eko paloteatua	Monteagudoko dantzak
Iparraldeko dantzak	Soka-dantza / gizon-dantza	Beasaingo dantzak
Jaurrieta / Axuri-beltza	Baztango irri-dantzak	Debako San Roke dantza
Jautziak / Mutxikoak	Txapelketako dantza soltea	Dantzarako teknika
Erregelak	Erronkariko Ttun-Ttuna	Arrateko dantzak
Eltziego	Soinu Zaharrak	Amaia ezpata-dantza
Sardinerak	Neskatxen esku-dantza	Altsasuko zortzikoa
Lesakako dantzak	Oriako Sorgin-dantza	Antzuolako trokeo-dantzak
Oñatiko dantzak	Zumarragako ezpata-dantza	Andoaingo axeri-dantza
Polkak	Txantxo-dantza	Kortesko Jota
Berastegiko dantzak	Saliña-saliña	Iurretako gorularien dantzak
Mazurka	Zozo-dantza	Legazpiko ezpatadantza
Lantz	Xemeingo ezpata-dantza	Lanestosako arku-dantza
Bedaioiko ingurutxoak	Sagar-dantza	
Kaxarranka	Ribaforadako Palotea	

Euskal dantza tradizionalen esparruko erreperitorioez gain, beste zenbait ezagutza, teknika eta erreperitorio aipatu dituzte zenbait irakaslek:


Probentzako karakter dantzak	Pilates dantzari aplikatua
Bulgariako dantzak	Barra eta dantzarako teknika
Ingalaterrako Morris dantzak	Dantza klasikoa
Eskoziako kadrileak	Dantza garaikidea
Errenazimenduko dantzak	
Greziako dantzak	
Europa Ekialdeko dantzak	

Argi dago Gipuzkoako dantzak probintzian bertan, Gipuzkoako bertako irakasleekin ikasi dituztela ia-denek, baina probintziaren tamaina dela eta, eta harreman sareak aintzat hartuta, zailagoa da neurtzea taldearen eragin esparruko irakasleak izan diren edo esparru horretatik kanpo aritu diren. Joera hori neurtu ahal izateko, beste erreperitorio batzuk begiratu ditugu. Bizkaiko eta Zuberoako dantzak dira gehien aipatzen direnak, eta bi kasu horietan herrialde horietako edo erreperitorio horietan espezializatuta dauden dantza irakasleengana zenbat jo den begiratu dugu.


Norekin ikasi dituzte dantza erreperitorioak?

Dantza irakasle askok "Bizkaiko dantzak" bezala izendatu dute osagai nagusia Durangaldeko dantzari-dantza duen erreperitorioa. Dantza sorta horrek zabalkunde handia izan du XX. mendean eta ia talde guztien erreperitorioan aurki daiteke. Beraz, ez da harrizkeoa grafikoak erakusten duen moduan %85ek dantzari-dantza taldean bertan edo asko jota taldearen inguruko irakasleekin ikasi izana. Bizkaiko irakasleekin edo erreperitorio horren inguruko ezagutza eta prestakuntza handiagoa duten irakasleekin ikasten aritu direnak %15 baino ez dira.

Bizkaiko dantzak norekin ikasi diren




Zuberoako dantzak norekin ikasi



Zuberoako dantzei dagokienez, %72k taldean bertan edo taldearen gertuko irakasleekin ikasi dituzte. Gipuzkoa eta Lapurdiko zenbait irakaslek Zuberoako dantzen inguruko ikastaroak eskaini dituzte azken hamarkadetan, eta horren ondorioz, %23k erreperitorio horretan prestakuntza berezia duten irakasleekin aritu direla ikasten ikus daiteke. Zuzenean zuberotar irakasleak izan dituztenak %5 baino ez dira.


Zuberoako dantzetan ematen diren antzeko proportzioak aurki daitezke beste erreperitorio nagusietan. Arabako dantzak ikasteko orduan %73k etxeko edo inguruko irakasleengana jo dute eta %27k izan du Arabako irakasleekin prestatzeko aukera. Lapurdiko dantzen kasuan proportzioa %64 etxekoak eta

%36 Lapurdiko irakasleak izan da. Luzaide eta Nafarroa Behereko dantzen kasuan aipagarria da %94k inguruko irakasleekin ikasi duela, eta %6k bakarrik izan duela inguru horietako irakasleekin ikasteko aukera.




Hutsuneak, desioak eta aukerak

Dantza irakasleek dantza irakaskuntzan aritzeko beren prestakuntzan hutsunerik antzematen ote duten jakin nahi izan dugu. Galdera hauxe izan da: Dantzaren irakaskuntzan aritzeko zure formazioan hutsunerik antzematen al duzu? %75ek dantza irakasle aritzeko bere burua formazioz herren sentitzen duela aitortu du. Galdera honetan erantzun gabekoen kopurua altu samarra izan da, % 15ek hutsik utzi baitu laukitxoak. Bestetik %10ek bere burua behar bezala prestatuta ikusten du dantzaren irakaskuntzan aritzeko.



Nork bere buruari dantza irakaskuntzan aritzeko gabeziak antzematea gauza bat da, eta beste bat jarduera horretarako hobeto prestatzeko asmorik izatea. Izan ere, hainbatentzat dantzaren irakaskuntzan aritzea epealdi baterako jarduera izan daiteke, eta laster alboratuko duen zeregina izanik, akaso ez du horretan trebatzen jarraitzen interes berezirik. "Ikastaro horiek egongo balira parte hartuko al zenuke?" galdetu dugu eta horretan irakasleen borondatea baiezkoa dela argi geratu da: %89k baietz erantzun du. Erantzun gabekoak %8 izan dira, ziur aski neurri handi batean nahi izatea eta ahal izatea bateratzeko zailtasunek eraginda, eta ezetz erantzun du %3ek.

Ikastaroetan parte hartuko zenuke?



Ikastaroen eskaintza zein ordutegitan bideratu daitekeen jakin nahian bakoitzari proposatu zaio zehaz dezan zein den bere beharrei ongien egokitzen zaion ordutegia. Ordutegia eskaini eta bakoitzak ikastaroetan parte hartzea posible izango lukeen ordutegia hautatu du. Emaitzean antzematen da larunbat goizak direla gehienek (67 aipamen) hobetsi duten asteko tartea. Larunbat arratsaldea (48) eta igande goiza (43) dira irakasleen egutegian egokitzen diren beste aukerak. Aste barruan iluntzetan nahiko parekotasun handia dago.

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
9:00-13:00	11	7	5	8	9	67	43
15:00-19:00	9	5	8	7	15	48	29
19:00-22:00	21	28	30	25	31	21	20

Dantzaren irakaskuntzan profesionalki dihardutenen artean aste barruan goizean ikastaroak egiteko prestutasuna antzematen da eta beraz, kopuru totaletan egokiera baxua eskaini arren, irakasle horiei bideratutako saioak planteatuz gero, aintzat hartu beharreko kontua dela dirudi.

Zer ikasi

Dantza irakasleek beren buruari antzematen dizkioten hutsuneak eta beharrak detektatzeko, eta interesez hartuko lituzketen ikastaroen berri izateko, ondoko galderak egin zaizkie inkestan:

- Zeintzuk dira dantza irakaskuntzan aritzeko zure prestaketan antzematen dituzun hutsuneak?
- Zein eremutan nahiko zenuke zure prestakuntza hobetu eta zeri buruzko ikastaroak egin nahiko zenituzke?

Gogotik erantzun dute irakasleek eta bakoitzaren ibilbidean izandako gora-beherak, gabeziak eta arrangurak agertzeko baliatu dute galdera irekia hainbatek. Erantzun zuzen eta mamitsu asko ere izan dira tartean. Hona bildutako erantzun arteko ondorio nagusiak:

- Ongi-etorriak dira formakuntza aukerak irakasleen iritziz, beharra dute, eta pozik hartzen dute gonbitea.
- Dantza irakasleen formakuntza integral bat behar dela antzematen da. Eta hori bermatuko duen titulazio baten beharra aldarrikatzen du hainbatek.
- Zer ikasi nahi duten galdetuta "errepertorioa" da erantzun nagusia. Badira zehaztapenak, ordea: tokian-tokiko irakasleak, estilo egokia eta umeekin lantzeko errepertorioak kontuan hartzeko eskatzen da.
- Dantza pedagogia da kezka gehien eragiten dituen. Dantzen oinarrizko ezagutza badute, baina dantza horiek nola irakatsi kezkatzen ditu, horretan hutsunea antzematen baitute.
- Dantzen alde praktikoaren aldean, alde teorikoarekin gabezia handiak dituztela aitortzen dute irakasleek. Formazio teorikoaren beharra azpimarratu dute.
- Dantza egiteko prestakuntza fisikoa eta teknikoaren garrantziaz ohartuta daude irakasleak, eta prestakuntza hori areagotu ahal izateko ikastaroak eskatu dituzte.
- Ez dute askok aipatu, baina bakar batzuek bai, dantza irakaskuntzan jarduteko musika oinarrizko ezagutzaren interesa. Dantzaren beharrei erantzungo dien musika prestakuntza litzateke.

- Neurri txikiagoan beste zenbait eskaera eta proposamen interesgarri izan dira: motibazioa lantzeko ikastaroak, ikuskizunen kudeaketa, sorospen jarraibideak, eszenara begirako espresio eta antzerki teknikak, janzkera...

Horra atal guztiak eta bakoitzean irakasleek esandakoen eta eskatutakoen laburpen bat:

1. Edozer ezerez baino hobe

Dantza irakasleak oro har nahiko kezkatuta ageri dira beraien formazio urriaz, eta formazio hori osatzen jarraitzeko aukera ezaz. Hainbatek ikastaro zehatzak proposatu dituzte, baina beste hainbatek nahiko gordin agertu dute edozein norabidetan planteatuta ere, ongi etorriak izango direla ikastaroak, gauza berriak ikasteko zein lehen ikasitakoak erreparasatu, osatu eta finkatzeko. Hona irakasleen hitzetan nola adierazi dituzten gauzak:

- Dantzari buruz beti ikasi edo hobetu daiteke, edozein ikastaro ondo etorriko lirarteke.
- Posible den guztia.
- Edozein eremutan hobetu nahiko nuke nire prestakuntza, beti dator ongi gauza berriak ikastea eta zaharrak gogoratzea.
- Ez dut formakuntza handirik, 4 urte nituenetik nabil euskal dantzetan eta 16 urterekin hasi nintzen irakasle lanetan, baina dantza batzuk jakiteaz gain ez dut beste prestakuntzarik, beraz, ikasten dudana ikasten dudala ere gustura egongo nintzateke, orain dudana maila baina handiagoa lortuko bainuke.
- Hutsuneak orokorrean antzematen ditut, eta eremu guztietan hobetzeko asko dagoela iruditzen zait.
- Ez daukat preferentziarik egin nahi ditudan ikastaroen inguruan, besterik gabe, nire dantzen ezagutza zabaldu nahi dut, dantza berriak ikasi, dakizkidanak hobetzerik balego hobetu

2. Formakuntza eta titulazioa

Dantza irakaslearen figura aldarrikatu, bere formaziorako aukerak eskatu eta kurrikulum baten interesa nabarmendu du hainbatek. Dantza irakaslearen ogibidea aldarrikatzen dute, eta jarduera horretarako beharrezkoa den formakuntza bideratu beharra.

- Dantza irakasleek, formakuntza pedagogiko zein dantza mundukoa eduki behar dutela ikusten dut.
- Ez dago irakasle batentzako formakuntza berezirik eta hori lortzeko zerbait egin

beharko litzateke. Ongi egongo litzateke curriculum antzeko bat prestatzea.

- Dantza tradizionalaren inguruko formazio iraunkorra ez izatea.
- Dantza maisu/maistra izateko ez da soilik dantzaz jakin behar nire ustez.
- Irakasle izateko prestakuntza bat behar dela ikusten dut, hau da, nahiz eta irakasle askok dantza ugari jakin, ez dakite dantza horiek transmititzen.
- Dantza eskolak ematen ditut, baina ez dut horretarako formakuntza zehatzik jaso (nire dantza irakasleek nirekin egindakoa imitatuz ematen ditut eskolak).
- Dantzako irakaslea izateko ez dut prestakuntzarik eduki, soilik dantzak ikasi ditut.

Dantza irakasleentzat titulazio bat ez egoteak kezka eragiten du eta horren beharra ere maiz agertu da erantzunetan. Musika eta Dantza eskoletan diharduten dantza irakasleek antzematen dute gordinen horren beharra, eta titulazioaz gain, beraien lankideen lan baldintza berak eskatzen dituzte. Profesionalizatzeko gogoia eta horretarako zailtasunak (formakuntza, titulazioa, kontsiderazioa,...) azaleratu dira.

- Formakuntza titulaziorik ez egotea da hutsunerik handiena. Profesionalizatu nahi da.
- Faltan botatzen dut kurrikulumean dantzako irakaslea zarenik ez agertzea.
- Dantza irakasleak, musika-eskoletako irakasleen kontsiderazio bera izan behako lukeela da nire ustea.
- Askotan iruditzen zait euskal dantzako irakasleak gutxi baloratuta gaudela.
- Ez legoke gaizki, irakasle bezala jarduteko titulazioren bat eskuratu ahal izatea. Horrela, irakasleon gutxieneko exigentzia, kontrola eta ebaluaketa egotea posible litzateke. Bestalde, kontratu baten babesarekin lan egiteak ematen duen zihurtasunaz gozatzea ere ondo legoke.

3. Errepertorioa

Zer ikasi nahiko zenukeen galdera zen nagusia eta erantzunetan antzematen da dantza errepertorioa zabaltzea dela gehien gogoia. Batzuk interes zehatzak badituzte ere askok eta askok ez dute horrelako zehaztapenik egin, errepertorioa orokorrean zabaltzeko ahal izateko ikastaroak eskatu dituzte:

- Dantza berriak ikastea.
- Dantzen errepertorio zabalago baten ezagutza.
- Sumatzen dut dakizkidan dantzen errepertorioa oso mugatua dela.
- Errepertorioa handitzea gustatuko litzaidake.
- Horren ezagunak ez diren dantzak ikasi nahiko nituzke.
- Errepertorioa zabaltze aldera, ia edozer.
- Edozein herrialdeko edo mota desberdineko edozein dantzen ikastaroak egingo nituzke, gehiago sakontzeko dantza bakoitzean.
- Dantza gehiago ikasi nahiko nituzke bai irakasteko eta baita neuk jakiteko.
- Euskal dantza gehiago ikastea eta lantzea gustatuko litzaidake.
- Orokorrean, dantzen errepaso orokor bat behar genuke.

- Euskal Herriko leku ezberdinetako dantzak ikasi eta perfektionatu nahiko nituzke.
- Ez dakizkigu dantza asko eta orokorrean dantzak ikasiko genituzke gustora.
- Errepertorioaren zatirik handiena taldeko irakasleengandik ikasi dugu eta aspaldian berri ez dugunez, dagoeneko desitxuratuta ditugu dantzetako asko.

Erantzun gehienetan errepertorioa orokorrean zabaldu ahal izateko eskaera egiten bazen ere, beste zenbait kasutan proposamen zehatzak egin dira:

- Zuberoako dantzetako ikastaroak gustora hartuko nituzke.
- Benetan gustatuko litzaidakeena Gipuzkoako dantzen inguruko zerbait egitea izango zen.
- Otsagiko dantzak.
- Durangaldeko dantzari-dantza.
- Bizkaiko dantzak batzuk badakizkit baina nire punturik ahulena dela uste dut, horiek hobetu nahiko nuke.
- Nafarroako dantzak ikastea gustatuko litzaidake.
- Euskal Herriko dantza oinarrikoak eta popularrak (herritarrek barneratuta dituztenak eta herritarrek plazan dantzatzeko modukoak direnak) koreografia ahalik eta jatorrizkoen eta naturalenean berreskuratzeko ikastaroak.
- Fandango eta arin-arin sakontzeko ikastaroak, arratiakoak ere...

Gehienek euskal dantzen errepertorioei begira jarri badira ere, zenbaitek dantza tradizionalen nazioarteko zenbait errepertorio ikasteko interesa erakutsi dute:

- Gipuzkoa eta euskal dantzetatik at beste edozein estilo eta kulturetako dantzak ikasiko nituzke gustura.
- Edozein herrialde iruditzen zait interesgarria beraien folklorea eta ohiturak ikasteko.

Errepertorioa zabaldu bai, baina dantzen jatorrizko lekuko irakasleekin eta dagokien estilo eta karakterrekin lantzeko gogoia erakusten du zenbaitek.

- Lekuan lekuko dantzak ikasi eta lantzerako orduan ezinbestekoa da bertatik edo "lehenengo eskutik" hartu ahal izatea oinarrian zer dagoen jakin ahal izateko dantza desbirtuatzeko joan gabe. Agian, gehien zabaldu, gehien dantzatu eta gehien desbirtuatu diren dantzak izaki, egokia litzake lekuko edozein ikastaro: zuberoko urratsak, behenafarroako jauziak, Otsagiko dantzak, Bizkaiko (Arratia aldeko) jota eta porruak edo Gipuzkoa aldeko trikitixa-solterako molde tradizionalak kasu.
- Tailer espezializatuak lekuan lekuko irakasleekin.
- Esango nuke teknikarekin batera -eta teknika oinarria da- dantza bakoitzaren kolorean eta karakterrean egin beharko litzatekeela indar apur bat, baina oso kontuz horretan ere, manierismo hutsean ez jausteko.
- Ahalik eta eskola eta jende desberdin gehiagoren dantzaera ikustea ere oso, oso aberasgarria iruditzen zait. Zera, esaterako, hainbat dantza-maisuren topaketak

dantza-ziklo baten inguruan.

Errepertorio zehatzei dagokienez, maiz agertu den kezka eta dantza irakasle askoren eguneroko jardunean eragin handia duena, umeein lantzeko errepertorioari buruzkoa da. Eskatera horri erantzungo dioten ikastaroak eskatzen ditu zenbaitek:

- Txikientzako dauden dantza berrien inguruko ez jakintasuna.
- Ez dakizkigu dantza asko umeei irakasteko, hori da dugun hutsune handiena.
- Batez ere txikienei erakusteko dantza dibertigarriak ezagutzea, eta espreski mutilen dantzak.
- 6-7 urtetako umeei erakutsi daitezkeen dantzak
- Umeentzat errazak diren dantzen errepertorio mugatua da eta mota horretako dantzen informazioa falta da.
- Momentu hauetan haur txikiei dantza erakusten nabil. Eta batzuetan txikientzako dantza gutxi dakizkidala pentsatzen dut. Horregatik dantza mota honetan daukat interes handiena.

4. Dantza pedagogia

Badira bi kezka behin eta berriz agertzen direnak erantzunetan. Batetik, dantzaren ikaskuntzarako tresna pedagogikoen hutsunea. Bigarrena, dantzaren inguruko formazio teorikoaren ingurukoa. Behin eta berriz aipatzen den kezka da irakasleek ez dutela dantzak irakasteko formazio bereziturik, eta beren jardunean antzematen dute hutsune hori. Dantzak, hobeto ala okerrago, ezagutzea gauza bat dela, baina horiek irakastea beste kontu bat. Horren inguruko kezkekin beteta daude hainbat eta hainbat erantzun:

- Nik dantzak badakizkit, baina nola irakatsi behar diren eta hori modu errazean egiten ez dakit.
- Askotan gertatzen zait dantzak nik egiten badakizkidala baina ez dakidala besteei nola erakutsi.
- Zaila egiten da zuk ikasitako zenbait pauso besteei nola egin irakastea.
- Ondo legoke didaktika edo halakoekin zerikusia duen gauzak ikastea.
- Pedagogia arloari dagokionean; umeen tratamendua, dantzak irakasteko metodologia, dantza eta jolasen arteko erlazioa, dantzarako motibazioaren bultzada...
- Dantzak irakasteko metodologia. Hau da, 'irakasle' bezala trebatzea: ez dantza asko ezagutu, edo dantzaren koreografia perfektua ezagutu, erakustearen artean trebatzea baizik (dantzak irakasten joatea modu erakargarri, erraz, natural eta eraginkorrean).
- Irakaskuntza teknikak eta pedagogia metodoak ikasi nahiko nituzke, izan ere dantzaren ezagutzatik aparte ez baitut inongo formakuntza pedagogikorik.

Zenbaitek eskaera zehatzak egin dituzte dantzaren pedagogiari dagokionean eta kezka eremu desberdinak (programazioa, klasearen antolaketa, koordinazioa, psikomotrizitatea...) ageri zaizkigu:

- Pausuak nola irakatsi hurrei
- Haurren antolakuntzan, nola landu pauso bakoitza.
- Programaketa: zein dantzekin hasi,...
- Zein fase jarraitu behar dituen dantza zehatz baten ikasketak.
- Koordinazioa erakusteko metodoak, jokoak, etab.
- Psikomotrizitate arazoak dituzten hurrekin egin daitezkeen ariketa ezberdinak, hori hobetzeko.

Irakasle batek lan horretarako beste arlo batzuetan ohikoak diren euskarri lagungarriak faltan botatzen dituela dio. Alegia, dantzen irakaskuntzarako unitate didaktikoak, irakaslearen liburuak eta material osagarriak ez dagoela dantza tradizionalaren alorrean:

- Faltan botatzen dut zenbait urrats hurrei irakasterakoan hauek irakasteko metodologia nonbait jaso ez izatea, (DVD, ikastaro bidez...)
- Nik uste irakasleentzat material didaktikoa falta dela: bideoak, liburuak...

5. Formazio teorikoa

Dantzaren pedagogia baldin bada irakasleen kezka nagusietako bat, formazio teorikoa da bigarrena. Dantza irakasleak kezkatuta ageri dira dantzari buruz duten ezagutza praktikoak ez duelako maila teorikoan bere neurriko erantzunik. Dantzaren inguruko ezagutza teorikoa orokorrean faltan sumatzen dute: dantzaren historia, dantza tradizionalaren inguruko kontzeptualizazioak, irakurketa sinbolikoak, e.a.

- Nire prestakuntzan nabaritu izan dudana hutsunerik nagusia ezagutza teorikoarena izan da.
- Dantzen ikuspegi globala izateko formazio teorikoa, klaseetako diskurtsoa lantzen laguntzeko
- Formazio teorikoak ere beti erakarri izan nau: dantzaren historiaz eta gure folkloreak oinarritzko ezagutzaz ari naiz.
- Dantzari buruzko teoria ere: zer den dantza tradizionala, ezaugarriak, zergatik dantza batzuk bai dira, zergatik beste batzuk ez, kanpoko erreferentziak eta parekotasunak, historia,... oinekin egiten duguna kontestuan jartzeko balio dezakeen edozein gauza ere falta zaigula uste dut.
- Dantza tradizionalaren bilakaera, joan etorri eta tradizioa jasotzen ahalegintzen diren azalpen teorikoak: non, zergatik, noiz arte, zeintzu dantza... Honi lotua berriz, sorrerarako tresnak, arrazoiak, eta batez ere, hankarik ez sartzeko gakoak edo

laguntzak.

- Dantzaren historiaren inguruan oso gutxi dakidala eta askotan lagungarri izan daitekelako.

Kezka orokorrekin batera, dantza irakasleek, beraien errepertorioan dauden dantzen inguruko informazioa, bai dantza horien testuinguruaren ingurukoa eta baita historikoa, urri dutela adierazten dute. Egiten duten dantza bakoitzaren jatorria, historia, testuingurua eta irakurketa sinbolikoen inguruko interesa agertzen dute:

- Dantza eta pausu ezberdinen jatorri, izen eta testuinguruaren ezagutzan topatzen dut hutsunerik nabarmenena. Sarritan dantzak ikasi bai, baina jatorrizko testuingurua ezagutzeko zailtasunak izan ditut.
- Ohituraz ezagutu daitezkeen dantza “bakoitzaren” jatorria, zertan datzan edo zer “antzezten” den definitu dezakeen ezagutza teorikoa.
- Dantza batzuen jatorria jakin, eta herri bakoitzeko “estiloa” ezagutzeko beharra.
- Euskal dantzei buruz gehiago jakin nahiko nuke, historia, jantziak....
- Askotan dantzak dantzatzen ditugu, eta dantzatzen irakasten ditugu. Baina, ez dugu jakiten nondik datozen, zer esanahi daukaten, noiz dantzatzen ziren, non... Guzti horri buruzko oinarri teorikoa izatea ongi legoke.
- Prestakuntza teoria aldetik ere jasoko genuke gustora, jakin dantzak nongoak diren, zergatik, e.a.

6. Prestakuntza fisikoa eta teknikoa

Dantzarako gorputza fisikoki ondo prestatzeko gorputz hezkuntzaz eta dantzarako teknika desberdinak ezagutu beharra sentitzen du hainbat dantza irakaslek. Lehenik eta behin gorputzaren heziketa fisikoa nola bideratu eta landu ikasteko gogoia du hainbatek:

- Gorputzaren heziketa fisikoa bera. Nola landu indarra, gorputzaren jarrera, beroketak, luzaketak, ...
- Gimnasia, gorputz hezkuntza... luzaketak eta berotze-ariketak, alegia prestakuntza fisiko egoki bat (adin guztietarako).
- Interes handia dut gorputzaren ezagutzaren, estiramentuen nahiz beroketa-tekniken inguruko formazioan.
- Dantza saioaren aurretik eta ondoren gorputza prestatu: dantza saio baterako beroketa, luzaketa eta lasaiketa egokiak, emaitzak hobetu eta arriskuak gutxitzeko.

Gorputza fisikoki ondo prestatzeaz gainera, nork bere dantzarako teknika hobetu eta ikasleen dantzarako teknika hobetzeko ariketak eta gidak ikasi nahi dituzte zenbait.

- Dantzarako behar den oinarrizko teknikaren falta sumatzen dut, gorputzaren ezagutza,

kolokazioa, ea.

- Iruditzen zait sarritan “dantzak” ikasten egiten ditugula eginahalak, eta gutxitan arduratzen garela dantza-teknikaz.
- Teknikoki hutsuneak dauzkat eta eremu honetan gustatuko litzaidake hobetzea.
- Teknika aldetik antzematen ditut hutsegiteak. Teknika hobetzea gustatuko litzaidake.
- Ez dugu inolako teknika landu eta oso nabaria da pausuen ejekuzioan.

Zenbaiten iritziz, dantza klasikoak eskaintzen du edozein dantza mota lantzeko oinarrizko teknika eta horretan trebatu nahiko lukete:

- Dantza klasikoan oinarrizko heziketa. Oso oinarri baliagarria izan daiteke beste dantza moldeak (tradizionala kasu) lantzeko.
- Hutsunerik handiena klasikoko falta dela uste dut. Gipuzkoako dantzen basea klasikoa dela esan daiteke eta nik behintzat inoiz ez dut klasikorik egin.
- Interesgarria iruditzen zait dantza klasikoaren ezagutza gutxienerako bat edukitzea.
- Euskal dantza irakasten aritzeko ezinbestekoa iruditzen zait klasikoaren ezagutza minimoa izatea, hori baita dantza guztien oinarria. Hortik aurrera edozein gehigarri ez du inongo kalterik egiten.

Badira ordea beste dantza mota batzuen teknikaren interesa azpimarratzen dutenak eta ikuspegi zabalagoa eskatzen dutenak ere:

- Dantza garaikideko zeinbait lerro ikastea ere ondo legoke, azken finean gorputzaren edozein mugimendu kontrolatzeko.
- Dantza klasikoak talde batzuetan duen gehiegizko eragina (estiloan batez ere) konpensatzeko beste mota bateko teknikak landu beharko lirarteke.

7. Musika eta dantza

Dantzaren irakaskuntzarako musikaren oinarrizko ezagutza izatearen interesa nabarmendu du zenbait dantza irakaslek. Musikari izanda ere, dantzaren irakaskuntzaren beharrei erantzungo dien musika ezagutzak lantzearen komenigarritasuna azpimarratu dute.

- Musika oinarrizko ezagutza bat dantzarako lagungarria
- Dantzan aritzeko musika ezagutza minimoak (nahiz eta kontserbatorioan solfeoa eta instrumentua ikasi nituen); nolabait esateko, dantzari aplikatutako musika ezagutzak.

8. Bestelakoak

Horiekin batera, talde dinamikak eta dantzarekiko interesa sustatzeko eta ikasleak motibatuzeko tekniken inguruko jakinimina erakutsi dute zenbait

dantza irakaslek. Ume, gazte zein helduen taldeetan dantza eskolak ematerakoan sortzen diren arazoek kezkatzen dituzte eta dantzaren transmisioan lan egiteko lanabesen beharra antzematen dute.

- Zailtasunik handiena dantzan interesa eta gogoia piztea eta hori mantentzea dela uste dut hala ere.
- Ikasle helduagoei motibatzekeo dantzak ezagutzea.
- Maiz edukitzen dut umeak nola motibatzen ez dakidalaren sentsazioa.

Aipatutakoak dira gehien errepikatu diren eskaera, proposamen eta kezka, baina horiez gain beste hainbat izan dira. Hona adierazgarrietako batzuk:

- Ikuskizunen kudeaketa.
- Neskentzat proposak diren dantzak.
- Eszenatoki baten gainean teknika eta dantzak jakiteaz aparte oso garrantzitsua da bertan egoten jakitea. Horretarako aproposa iruditzen zait irakasleok espresio eta antzerkiaren zenbait teknikak ere bereganatzea.
- Sorospena: zer egin balizko lesio baten aurrean (orkatila okertu, tiroiak, jausi eta kolpea hartzea, zorabioak...). Halakoak gertatu ohi dira, niri gertatu izan zait bai ikasle bai irakasle bezala, eta nahi ala ez, taldea guri begira dago. Gu gara arduradunak.
- Dantza bakoitzari dagokion erropak eta hauen jatorria